


Jaio aurretik CRISPR erabilia, gaixotasun genetiko bat garatzea eragotzi dute saguetan

Gizakietan jaio aurretik geneak editatzea debekatuta badago ere, saguekin saiakera ugari egiten ari dira zientzialariak, eta, lehenengo aldiz, jaio aurretik gaixotasun genetiko bat tratatzea lortu dute, [CRISPR teknika](#) erabilia. Tirosinemia gaixotasun hereditarioa duten saguetan, mutazioa isilarazita gaitza garatzea eragotzi dute.



ARG.: Ernesto del Aguila, National Human Genome Research Institute.

Kasu honetan, mutazioaren eragina eragotzi dute edizio genetikoaren bidez, baina ez dute mutazioa zuzendu, [Nature Medicine](#) aldizkarian argitaratu dutenez. Hurrengo erronka, hain zuzen, horixe dutela adierazi dute.

Ikertzaileen arabera, helburua da estrategia bat garatzea tratamendu eraginkorrik ez duten giza gaixotasunak jaio aurretik zuzendu ahal izateko, batez ere jaiotakoan konplikazio larriak edo heriotza eragin ditzaketen kasuetarako. Tirosinemiaren kasuan, dieta oso zorrotza egin behar izaten dute haur jaioberriek bizirik jarraitu ahal izateko. Botika bat badagoen arren, funtzionamendu-arazo handiak eta minbizia eragin ditzake gibelean. Jaio aurreko edizio genetikoak potentzial handiko teknika izanik ere, aitortu dute aurretik lan handia dagoela egiteko. ●

Zientzia eta teknologia Euskadi Irratiaren sintonian Guillermo Roaren eskutik



OSTIRALETAN: 22:00etan
LARUNBATETAN: 15:00etan
Interneten: norteko.elhuyar.eus